



4.6. DIRULAGUNTZA LERROA: IKASLEEN VI. BAKARRIZKETA LEHIAKETA. 2025. OINARRI ESPEZIFIKOAK

1. Dirulaguntzaren xedea

Lerro honen xedea da Errenteriako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan egingo den lehiaketa baterako jarriko diren sariak diruz laguntzea. Bakarrizketa lehiaketaren helburua da herriko ikastetxeetako ikasleen artean euskaraz ahozko diskurtsoak eraikitzeko gaitasuna lantzea eta jendaurrean aritzeko trebetasuna handitzea.

2. Dirulaguntzak zein partidaren kargura egingo diren eta emango diren dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa

Dirulaguntza hauek 2025eko aurrekontuko partidaren kontura izango dira.

Partida hori ondorengoa da:

1030.480.02.335.10

Dirulaguntzak: sariak: 2.500 €

3.- Parte hartzeko oinarriak:

Lehiaketa ikastetxean bertan egingo da.

a) Lehiakideek banaka edo binaka hartu dezakete parte. Eta bi maila bereiziko dira:

- DBH 1. eta 2. (lehen zikloa).
- DBH 3. eta 4. (bigarren zikloa).

b) Saio bakoitzean bakarrizketa bat edo 4/5 txiste kontatu beharko dira. Txisteen artean nolabaiteko lotura bat egin beharko da.

c) Kontaketak, gutxienez, 2 minutuko iraupena izango du, eta gehienez 4 minutukoa.

4.- Dirulaguntza eskaera egiteko epea eta lekua.

Ikastetxe bakoitzean barne mailako lehiaketa egingo da eta irabazleen datuekin akta bat bidaliko dute Udal Hizkuntza Politikako Sailera maiatzaren 8 baino lehen.

Sari banaketa udal jarduera batean egingo da maiatzaren 22an. Eta bertan agertuko dira saritu



guztiak.

5.- Epaimahaia

Ikastetxe bakoitzeko epaimahaia ikastetxeak berak hautatuko du. Gida gisara, hauek izan daitezke partaide:

- Ikastetxeko Hizkuntza Normalkuntzako Teknikaria.
- Ikastetxeko Euskara Mintegiko buruak.
- Ikastetxeko Ikasleen Batzordeko ordezkari bat.
- Zuzendaritzak proposatutako edonor.

6.- Baloratuko diren alderdiak:

- Kontakizunaren/ txisteen umorea.
- Kontakizunaren arintasuna eta naturaltasuna, bat-batekotasun itxura.
- Saioaren jarraikortasuna, trinkotasuna eta luzera (zenbat eta kohesio gehiago izan, hobe).
- Erabilitako hizkuntzaren ulergarritasuna eta kalitatea.

7.- Sariak

SARIAK		DBH 1/2	DBH 3/4
IKASTETXEKO IRABAZLEENTZAT	1	70 €	80 €
	2	50 €	60 €
	3	25 €	40 €

Saria dutenei, diploma eta bale bat emango zaizkie.

Saridunek, sari banaketa egunerako, saria sartzeari nahi duten kontu korrontearen datuak dituen agiri bat aurkeztu beharko dute. Eredua udalak emango die ikastetxeei.

Oharra: Ordainketa egiteko derrigorrezkoa da Udal Hizkuntza Politika bulegoan Kontu Korrontearen titulartasuna egiaztatzeko dokumentua aurkeztea edo emailez bidaltzea euskara@errenteria.eus



helbidera. Gurasoen edo tutoreen kontuak onartuko dira.

Sariak eman gabe geratu ahal izango dira epaimahaiak kontsideratzen badu nahikoa maila ez dagoela.

8.- Dirulaguntza ordaintzea

Dirulaguntzaren ordainketa Udal Hizkuntza Politikako zinegotzi delegatuak dirulaguntzak banatzeko behin betiko ebazpena sinatu ondoren egingo da. Dekretu horretan jasoko dira irabazleen izenak eta Udaleko webgunean argitaratuko dira. Ordainketa dirulaguntza hori lortzeko adierazi zen xedea bete dela egiaztatu ondoren egingo da aldi bakar batean.

Ohar garrantzitsua: deialdi hau egin da ERRETERIAKO UDALAK 2025 URTEAN DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEKO OINARRI OROKORREI jarraiki. Hemen zehaztu gabeko gai orotarako oinarri horietara jo beharko da.

INFORMAZIOA: Udal Hizkuntza Politika departamentua. Tf. 943449613. emaila: euskara@errenteria.eus.